

IRAGARKIA

27. ALDIZKARIA - 2024ko otsailaren 6a

2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.1. OPOSIZIOAK ETA LEHIAKETAK. LAN PUBLIKOAREN ESKAINTZA OLAZTI

Deialdia, atezainaren eta garbitzailearen lanpostu huts bat, lan-araubidekoa eta lanaldi partzialekoa, merezimendu-lehiaketaren bidez betetzeko, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesu bereziaren barnean. Bete gabe deklaratzeari buruzko deialdia.

Ikusi da deialdi honetako kalifikazio-epaimahaiak 2023ko maiatzaren 18an emandako akta: deialdia, atezainaren eta garbitzailearen lanpostu huts bat, lan-araubidekoa eta lanaldi partzialekoa, merezimendu-lehiaketaren salbuespenezko sistemaren bidez betetzeko, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesu bereziaren barnean. Aktan jasotakoaren arabera, deialdia bete gabe deklaratu da, izangairik ez dagoela eta. Horiek horrela,

EBAZTEN DUT:

Lehena.–Bete gabe deklaratzeari buruzko deialdi hau: deialdia, atezainaren eta garbitzailearen lanpostu huts bat, lan-araubidekoa eta lanaldi partzialekoa, merezimendu-lehiaketaren salbuespenezko sistemaren bidez betetzeko, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesu bereziaren barnean.

Bigarrena.–Ebazpen hau berrestea Erburua SLren kontseiluak egiten duen hurrengo bilkuran.

Hirugarrena.–Ebazpen hau argitaratzea Udalaren gardentasun atarian (deialdiari dagokion atalean), egoitza elektronikoan eta iragarki-taulan, haren aurka zer errekurtsio jartzen ahal diren adierazita.

Olaztin, 2024ko urtarrilaren 2an.–Jarduneko burua, Joseba Vizuete Ascargorta.

Iragarkiaren kodea: L2400093